



# BOST BILLABONATAR SAN PEDRON ARRAUNEAN

Garikoitz Lopetegi, Joseba eta Eneko Larrarte eta Andoni Leunda billabonatarrek euren esperientziaz hitz egin dute 6-7

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2008-07-23**

VIURTEA 1.493.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## ABESTIA ERE ERAIKITA

**IRURA** Kilometroetako abestiaren musika Desordutan talde tolosarrak egin du eta hitzak Mendiluzek jarri dizkio

**TALDE LANA** Mulambo, Bonberenea txaranga, Deabruak Teilatuetan eta Gorka Otxoa aritu dira laguntzaile lanetan z



Desordutan taldeko kideak, Igor Elortza eta Aitor Mendiluze, atzo Donostian eginiko prentsaurrekoan. HITZA

**Jamix taldearen kontzertua izango da bihar Gau Giron, Lopez Mendizabalen**

**TOLOSA** Jon Arruabarrena tolosarra ariko da saxoa eta txirula jotzen 3

**Irudimena eta aisia uztartzea helburu, gaztetxoek txokoa antolatu dute**

**BEDAIO** Bi egunez izango dira ekitaldiak, larunbatean eta igandean 5

**«Giro ona» nabarmendu dute Asteasun eta Albizturren santamañen inguruan**

**TOLOSALDEA** Ekitaldi ugari izan dira bi herrietan eta «oro har pozik» daude 5

**Zatoz Villabonako jaietan preso eta iheslariekin afaltzera!**

Uztailaren 24tik 31ra  
20:00etatik 00:00etara  
Berdura plazan



Preso eta iheslarien aldeko JANTOKIA Villabonako jaietan



Oinarria eraikitzen abestiaren grabaketako zenbait irudi ikusi daitezke bertan, baita bideo kliparenak ere. HITZA

## Elkarlanean 'eraiki' dute Kilometroetako abesti ofiziala

**Irura** » Atzo aurkeztu zuten abestia; Desordutan talde tolosarrak egin du musika eta Mendiluzek jarri dizkio hitzak.

### ESTI ZEIZA

«Amestutakoa lortzeko bidean» beste pauso bat eman dute Kilometroetakoek. Bide hau eta jopuntua zein den garbi islatzen duen kantua egin baitute. Atzo aurkeztu zuten Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean, 2008ko Kilometroetako kantua ofiziala izango dena. Hemendik aurrera hainbat eta hainbat tokitan entzuteko aukera egongo da.

Kantua egiteaz Desordutan talde tolosarra arduratu da, baina hainbat artista eta musikari izan dituzte bidelagun. Horien artean,

### » 'OINARRIA ERAIKITZEN' KANTUAREN HITZAK

Ikastola berria.  
Sortu,  
helburuak lortu,  
gertu,  
garena agertu.

Zama,  
taldeak darama,  
lana,  
jasoa, emana.

Herria egiten,  
geroari eragiten.

Biharrari arnas,  
orainak emanaz.

Unea heldu da,  
lurra  
da jomuga  
amestutako hura  
lortzeko ardura.

Geroa egiten,  
Herriari eragiten,  
ekiten...

Orainari arnas,  
biharko emanaz.

Unea heldu da,  
lurra  
da jomuga,  
amestutako hura  
lortzeko ardura.

Eta heldu da  
lurra  
helburura,  
amestutako hura  
daukagu eskura.

Ikastola berria,  
garenaren neurria,  
lurako herria,

biharko oinarria.  
Azkeneko harria  
denoi esker jarria,

Ikastola berria,  
oinarria...  
Eraikitzen,  
eraikitzen,  
luberritzen,  
eraikitzen.

Eraikitzen,  
hautsak astintzen,  
maldak berdintzen,  
oinarria ipintzen,  
geroa hurbiltzen.

Eraikitzen,  
erabiltzen,  
nahiak biltzen,  
oinarria ipintzen,  
zuekin handitzen.

abestiaren letra idazteaz arduratu den Aitor Mendiluzek bertolarria; Mulambo perkusio taldea; Bonberenea txaranga; Deabruak Teilatuetan taldeko kideak; Jone bakar-laria eta Izeba Pilarren Ilobak taldeko Gorka Otxoa.

### Kantuaren nondik norakoak

Aurtengo jaialdirako kantua, alaia, dantzagarria eta azken batean, Kilometroen muinean dagoen festa giro hori islatzen zuena izan behar zuela argi zuten antolatzaileek. Hone-l, eskualdeko artista guzti horien

### Laguntzen aritu dira Bonberenea txaranga, Deabruak Teilatuetan, Mulambo eta Gorka Otxoa

elkarlanetik, kantu freskoa, bizia eta itxaskorra egitea lortu dute. Baina horretarako ikastolaren beraren filosofia barneratu nahi izan dute. Hau da, «talde bakarrak ezin duela egin dena, eta inguruko laguntza behar duela kantua eraikitzeko». Ideia hau bera islatu nahi izan dute bideo klippean.

Bideo klippean ikus daiteke, nola Ekhi, Maria eta Ryan gaztetxoek beraien globo majikoetatik, Kilometroetako ikurrak botaz, Irurako ikastola osatzen joaten diren. Baina memento batean, hiruek bakarrik ezin dute eta guraso, irakasle, herritar nahiz artistak joaten dira beraiei laguntzera, azkenik eraiki ahal izateko, hemendik gutxira beraien eta irurarren ikastola izango dena.

Bideoaren ekoipenez Rundown estudioetako Karl Watermark arduratu da. Honek, Zutirudi enpresak zehaztutako gidoiari jarraitu dio, hau gauzatzeko garaian.

Desordutan taldekoek agerraldian azaldu zuten, «oso harro» daude beraien kantua arduradunak izateaz. Izan ere, beraien ustetan, «talde gazte eta berri bateganako apustua egin dute» antolatzaileek, eta hori eskertzekoa da. Dena den, behin eta berriz aipatu zuten, «talde lan baten ondorio» izan dela kantua, «proiektu bateko zati», eta horrenbeste artistaren lana batzean, oraindik eta aberatsagoa izan dela emaitza. Hemendik aurrera, behin eta berriz entzungo da kantu hau kalean, eta baita urriaren 5eko jai handi horretan ere. Horregatik, denek gustuko izatea espero dute.

**berria** bekak  
2008

### Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: 8 beka, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpeginetza arloa: beka bat


### Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietaren

### Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08  
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragarri



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Laburrak

### 2009ko egutegirako argazki lehiaketa abian

**GIZARTEA** • Tolargik eta Tolosagasa 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian *Tolosa eta bere jaiak* gaiarekin. Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte Tolargiren (Rondilla kalea, 34 behe) nahiz Tolosagasaren (Arostegieta kalea, 18 behe) bulegoetan. Irailaren 29a izango da argazki aurkezteko azken eguna. Irabazleak argi edo gas fakturaren zenbatekoa jasoko du, gehienez 600 euro, eta 300 euroko beste bi sari ere izango dira.

### Paleta Txapelketaren gaurko partidak

**KIROLA** • Tolosa Cfk antolatuturiko Paleta Txapelketak aurrera darrai, eta gaur, azken egunetan bezala kanporaketako partidak izango dira, 19:00etatik aurrera Berazubi estadioko pilotalekuan. Zubeldia-Goitiak Niko-Txeperen aurkakoa izango da lehendabizikoa, eta ondoren, Apeztegia-Maiza eta Lontxo-Nazabalen aurkako partida izango da. Kanporaketako azken partidak izango dira.

## Telefonoak

### Larrialdiak. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 2339

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Oresa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzarar autob.** 948 221015

**Taxi:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udalteingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurramendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

# Jamix taldearen kontzertua, bihar Gau Giron, Lopez Mendizabalen

**Musika** » 22:30ean hasiko da kontzertua; funky doinuak nagusituko dira beste hainbat musika estiloren artean.

#### IÑIGO TERRADILLOS

Gau Giro ekimenaren emanaldi berri bat izango da bihar 22:30etik aurrera. Pasa de astean Tolosako Musika Bandaren kontzertua bezala, Lopez Mendizabal pasealekuan izango da, beraz, biharkoan ere, tabernetako terrazetan daudenek zuzeneko musikaz gozatu ahaliko dute. Kasu honetan, Jamix taldea izango da taula gainean arloko dena.

Inprobisazioaren eta musika estilo nahasketaren bitartez musikaz gozatu eta gozarazten saiatzen den talde gazte eta dinamikoa da Jamix. Funk, latin, bossanova, samba, reggae, rap, groove, soul, jazz, swing, blues, rock, pop, flamenco, ambient-chillout, ethnic, drum & bass, house, disco, dance eta beste musika mota asko jorratzen dituzte; musika mota ugari lantzeaz gain, hizkuntza ezberdinetan abesten dituzte: ingelesa, portugesa, gaztelania, euskara...

#### Tolosan berriro

Euskal Herriko hainbat herri eta hiritan zuzeneko emanaldiak eskaini dituzte, baita Tolosan ere, Bonberenean, duela hilebete edo.



Alex Julian, Amaia Garate, Jon Arruabarrena, James Morris, eta atzean Joxean Flores, Bonberenean. HITZA

Orain berriro bueltatuko dira Tolosara euren musika jende gehiagoren aurrean ezagutaraztera.

#### Estilo anitzeko taldea

Sei kidek osatzen dute Jamix taldea: Amaia Garate (ahotsa), Jon Arruabarrena (saxoa eta txirulak), Ganix Ubarretxena (teklatura eta pianoa), James Gareth Morris (baxua, gitarra eta ahotsa), Joxean Flores (bateria eta perkusioa) eta Alex (gitarra eta koruak). Bakoitza estilo desberdinekoa da, eta hainbat musika taldeetatik igaro ondo-

ren elkartu egin dira Jamix osatzeko. Ondorioz, musika estilo asko jorratzen duen taldea dugu. Duela lau urte sortu zen, eta duela bi urte tik ari dira zuzeneko emanaldiak eskaintzen. Aurrera begira egonkortu eta disko bat grabatzeko asmoa ere badute.

Herrialde desberdineko kideek osatzen dute taldea, eta horien artean bada bat Tolosakoa, Jon Arruabarrena. Saxo klasiko zein garaikideko ikasketak Tolosako Musika Eskolan burutu zituen, Enrike Arostegiren gidaritzapean.

Jamixez gain Tolosako musika bandan, Bonberenea txaranga, eta Desordutan taldean ere jotzen du Arruabarrena.

Gainerako taldekideei dagokionez, Amaia Garate Amorebietakoa da, Ganix Ubarretxena Donostiakoa, Joxean Flores Zumarragakoa eta James Gareth eta Alex Ingaltarrakoa. Biharko kontzertuari dagokionez, Ganix Ubarretxea eta Joxean Flores ez dira izango, eta hauen ordez, Joxerra Etxeberria izango da teklaturan, eta Gorka Otamendi tolosarra baterian.

## «Biharkoa kontzertu goxoa eta animatua izatea espero dugu, denetarik izango da»

### JON ARRUABARRENA » Musikaria

#### I. TERRADILLOS

Saxoa eta txirula jotzen ditu Jon Arruabarrenak (Tolosa, 1983) Jamix musika taldean. Duela hilabete Bonberenean kontzertua eman ostean, berriro ere bere jaioterrira dator zuzeneko euren musika eskaintzera. «Gustura» azaldu da Tolosako biharko emanaldiaren aurrean.

#### Duela hilabete kontzertua Tolosan, eta berriro ere bueltan. Gustura, ezta?

Bai. Bonberenean aritu ginen, eta esperientzia oso ona izan zen, etxean jotzea bezala, lagunartean. Oso gustura aritu ginen, eta oso giro ona izan zen, oso ondo pasa genuen. Orain berriro bueltatzen gara. Desberdina izango da, izan ere, leku berria da kontzertuak emateko, eta aurreko astean ikusi zen, Musika Bandarekin ondo da gozela. Leku polita da.

#### Zer eskainiko duzue?

Esan bezala, Bonebereneakoarekin konparatuz desberdina izango da, lasaia edo. Dena dela, kontzertu goxoa eta animatua egitea espero dugu, denetarik izango da. Jende asko animatzea espero dugu, eta jendea gustatzea.

Bai. Estilo ugari eta desberdinak gustatzen zaizkigu taldeko kide bakoitzari, eta horrek ere zeresana du. Dena den, oinarri bezala, funky-a dugula esango nuke, eta beste musikekin nahasten dugula. **Zuek eskaintzen duzen musika ez da hain ohikoa gurean.**

Oraindik ez dago Euskal Herrian ohitura gehiegi musika mota hau entzuteko, baina, ari da pixkanaka pixkanaka sartzen. Hemendik kanpora asko entzuten da.

**Hutsune hori bete nahi al zenuten orduan?**  
Ez dugu musika mota hau eginen

hutsune bat bezteagatik. Guri musika hau egitea gustatzen zaigulako egiten dugu.

#### Duela lau urte sortu zen taldea, eta egun egonkortuta zaudete.

Hala da. Jamix duela lau urte hasi zen lanean, eta ordu tik hainbat musikari aritu izan dira. Duela bi urte hasi ginen zuzeneko emanaldiak eskaintzen, Donostian eta Donostia inguruan batik bat, eta esan daiteke gaur egun taldea osa-

tzen dugun sei kidek nahikoa egonortu dutela Jamix.

#### Zeintzu dira aurrera begira dituzue proiektuak?

Bihar, Tolosan eta etzi Donostian Jazaldian ariko gara. Gero uda nahiko lasaia dugu. Irailetik aurrera gogor hasi nahi dugu lanean. Maketa bat prestatu genuen, eta disko bat grabatzea irailetik aurrera egiteko buruan dugun zerbait da.

**@ Zurea da hitza.** Eskualdeari buruzko berriak sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak. Horretarako **Zurea da hitza** izeneko atalean sartu besterik ez duzu egin behar. Bertan kekak, eskerrak, proposamenak... sar ditzakezu, eta argazkiak ere bai. Zure datuak sartzeko gomendatzen dugu zurekin harremanetan jarri behar izan beharko bagenu:

**www.tolosaldekohitza.info**

## Iragarki laburrak

#### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean etxebizitza salgai. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuek deitu 657 23 00 11 edo 634 91 94 82 telefono zenbakietara.

**L** **Laburrak****Jaietan, Sokadantzan aritzeko entsegua, gaur**

**IBARRA** ● Heldu den Ibarako San Bartolome jaietan Sokadantza egin ahal izateko, entseguak gaur bertan hasiko dira Alurreko lokal zaharrean. 19:30ean hasi eta ordubete iraungo dute entseguak, 20:30era arte, hain zuzen ere. Abuztuaren 20ra arte asteazkenero eta ordu berean egingo dituzte ikastaroak. Arduradunek jakitera eman dutenez, parte hartu nahi dutenek nahikoa izango dute bertara azaltzea.

**Gaur Bartolo jaien inguruko batzar irekia egingo dute**

**IBARRA** ● Gaur Ibarako plazan Bartolo jaien inguruko batzar irekia egingo dute, 19:30etik aurrera. Arduradunek herritarrei bertara agertzeko deialdia egin diete.

**Gaur, TAKeko nesken traineruaren aurkezpena**

**TOLOSA** ● Tolosaldeko Arraun Klubeko nesken traineruaren aurkezpen ofiziala egingo dute gaur Tolosako udaletxearen aurrean 13:00etatik aurrera. Halaber, aurkezpen hau Udalaren eta TAKen arteko lankidetzak hitzarmena sinatzeko baliatuko dute.

**Langostinokoen irteera Iruñeara, igande honetan**

**IBARRA** ● Langostino Moto Kultur Elkarteak irteera antolatu du hilaren 27rako, igande honetarako, hain zuzen ere. 10:00etan egin dute hitzordua eta Iruñea aldera abiatuko dira. Eguna igaro ondoren, 19:30a aldera Anoetako Saloan Radical Biker-era itzuliko dira motozaleak. Irteeran parte hartzeko interesa dutenek 30 euro ingresatuz eman dezakete izena. Kontu korrontearen zenbakia ere luzatu dute antolatzaileak: Euskadiko Kutxako 30350141841410023232 kontuan.

**Euskal dantza ikastaroaren hurrengo saioa, gaur**

**TOLOSA** ● Sanblasipiko Gazte Asanbladak antolatu duen euskal dantza ikastaroaren hurrengo saioa gaur bertan egingo dute. Ikastaro honetan fandangoa eta arin arina irakatsiko dituzte 11:30etik 13:00etara, Otsabi gazte lokalean. Irakasle lanetan Tolosako Udaberri dantzari taldeko partaideak ariko dira. Saioak asteazkenero izango dira eta Sanblasipitik parte hartzeko deialdia luzatu dute herritar gutziari.

**Isabel Mujikaren lanak ikusgai Itaietabarnan**

**TOLOSA** ● Hil honen amaierara arte Isabel Mujikaren margolanak jarri dituzte ikusgai Itaietabarnan. Mujikaren koadroak 15 olio-lan dira, gehienak paisajeeak.

**Alpino Uzturre elkartearen irteera Pirinioetara**

**TOLOSA** ● Asteburu honetan, ostiraletik igandera bitarte, Pirinioetara mendi irteera antolatu du Tolosako Alpino Uzturre elkarteak. Izen-ematea elkartearen bertan egin daiteke. Palas (2.974 metro) eta Lurien (2.826 metro) mendiak izango dituzte mendizaleak.

**Udalak udako argazki lehiaketa antolatu du**

**ELDUAIN** ● Udalak udako argazki lehiaketa antolatu du. Irabazlea jaietako egitarauran emango da jakitera. Hainbat baldintza ere finkatu dituzte Udaletik. Bidaltzen diren argazkiak, oportetakoak izan behar dute eta posta elektronikoz bidali behar dira udaletxera: [kultura@elduain.com](mailto:kultura@elduain.com) helbidera. Partehartzaileek nahi adina argazki bidali ditzakete lehiaketara eta argazkiarekin batera izen-abizenak jarri behar dira eta nahi bada argazkiari buruzko komentario txiki bat.

**Izaskun auzoko danborrada berreskuratuko dute, hainbat urte eta gero**

**Tolosa** ● Irailaren 5ean izango da eta Arsenal, Emendek eta Izaskun elkarteetan eman daiteke izena.

**ERREDAKZIOA**

Izaskun auzoko jaien barnean, heldu den irailaren 5ean, ostiralarekin, auzoko danborrada berreskuratuko dute urte batzuetako geldialdiaren ondoren.

Izen-ematea auzoko hiru elkarteetan (Arsenal, Emendek eta Izaskun) eta Denaktabarnan izango da 15 euroren truke (prezioaren baitan afaria eta jaietako zapia dago).

**Azken eguna, abuztuaren 25a**

Izena emateko azken eguna abuztuaren 25ean izango da eta entsaioak abuztuko azken astean hasiko dira.

**Z** **Zurea da hitza** **info****Bidegorria bukatuta al dago?**

**Tolosaldekoa** ● Bidegorriaren egoeraren inguruko kexa azaldu du herritar batek hainbat arrazoi direla eta.

**HERRITAR BAT**

Kaixo! Eguraldi onak hasi dira eta bidegorria erabili dut nere seme-alabekin egun batzuetan eta kexa pare bat ditut esateko:

Alde batetik, zati batzuetan, gehiago babesteko edo, kanpo aldetik egurrezko babesa jarrita dago. Baina, kanpo aldetik babestua bakarrik egoteak ez du zentzu handirik!! Kanpotik bezain beste edo garrantzi gehiago du barrutik babestua egoteak, oso arriskutsua baita bizikletan edo oinez doanarentzako. Oso altura txarrean dau-

de eta burni guztiak bistan. Haur eta helduentzat oso arriskutsu eroriko bat izanez gero. Ea zerbait egin duten barru aldetik ere babestua izateko.

Ea lehenbailehen jartzen dituzten...

Bestalde, eta hau gauetarako farolik ez dagoen lekuetan, bai Alegia eta Ikaztegieta artean eta Ikaztegieta eta Legorreta artean oso ilun geratzen da egurrezko babesa. Argi distiratzailak edo jartzen dituzte beste lekuetan eta hor ere zerbait jartzea ez dela hain zaila iruditzen zait. Oso ilun dago errepide bazterra eta dagoeneko batek baino gehiagok jo du egurrezko babesa.

Ea noizbait, posible den lekuetan lanak ondo bukatzen dituzten! Ezta erreza leku batzuetako egoerarikusita baina...txapuz!

**Urtekariaren aurkezpen jendetsua**

**ALTZO** ● Pasa den ostiralean udaletxeko multimedia gelan jendez lepo zegoen. Arrazoia, 2007ko herriko urtekariaren aurkezpena izan zen. Urteak daramatzate, herritarren partaidetzarekin, liburu hau publikat-

tzen; bertan herriak urtean zehar eman dituen albiste garrantzitsuenak biltzen dituzte. Aurkezpenaren ondoren, afari merienda egin zuten Elordi elkartearen. «Giro polita» izan zen. HITZA

**ZABALA DESGUAZEA**

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347  
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

**txokoa****2 pertsonentzako piragua eskolan ikastaroa zozketan**

Txaraman abuztuaren 18-23ko astean goizez

irabazlea:  
Andres Arregi  
(Villabona)



**KAXKARDI**  
KIROL ERREKREATIBO ELKARTEA  
[kaxkardi@hotmail.com](mailto:kaxkardi@hotmail.com)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Saria jasotzeko antolatzaileak jarriko dira zurekin harremanetan.

# Gaztetxoek txokoa antolatu dute bi egunetan, irudimena eta aisia uztartuz

**Bedaio** » Larunbat arratsaldean eskulanak eta ipuin kontaketa izango dira merienda eta guzti. Igandean, mendira doaz.

## ERREDAKZIOA

Bedaion asteburu honetan egun bereziak biziko dituzte, gaztetxoek txokoa, hain zuzen ere. Larunbatean eta igandean bertaraten direnek izango dute ondo pasatzeko aukera. Mendi irteera, eskulan tailerrak, ipuin kontaketa... Asteburu honetan Bedaion, beraz, gazteenentzat.

Larunbatean 16:00etan bilduko dira Artubi elkartearen eta bertan arratsaldean zer ekitaldi egingo diren, eskulanetarako materiala aurkeztu eta lanaren banaketa egingo dute biltzen diren haur guztien artean.

16:30ean «ipuin kontalari baten bisita jasoko dugu». Ipuin kontala-



Eskulanak egingo dituzte larunbatean, material ezberdinarekin. Aurretik banatuko dute materiala. HITZA

ri honek «une batez bere mundura eramango gaitu eta bere munduan gertatzen diren istorio harrigarrien berri emango digu».

Ondoren, lanari ekingo diote. Aurrez banatutako materiala har-

tu eta paperari, kartoiari eta egurrari forma eta kolore ezberdinak emango dizkiete txikiak. «Bakoitzak bere abilezi eta trebeziaren arabera sormen lana landuko du. Agian gure artean artista txi-

kiren bat dugula konturatuko gara...»

Lanak aurreratzen doazen einetan, gosetzen direnerako merienda eder bat zain izango dute txokolata eta txurroez lagunduta.

## Igandean mendira

Eguna amaitzeko haurrentzat bereziki aukeratutako film emanaldia izango da. «Eta denok goiz lotara hurrengo egunerako indarrak gorde behar dira eta».

Igande goizean, 10:30ean Artubi elkartetik abiatuta, mendi irteera egingo dute. Gurbil Haunditik barenna, Azkarartetik bueltan, mendi txiki aldera igoko dira. Han eguraldiak laguntzen badu eta haize egokirik balego kometak zabalduko dituzte hegan egin dezaten. Ondoren, Artubi elkartera jaitsiko dira berriro, «makarroiak jatera».

## Adin guztiei zuzendutakoa

Arratsaldean nahi izanez gero, jolasean jarraituko dute Bedaioa bertaraten direnek, haiek aspertu arte. Izan ere, ekitaldi asko egiteko aukera dago.

Beraz, «badakizute haurrok, asteburu honetan Bedaion huts egin ezin den giroa dago». Ez dago adin mugarik eta «saiatuko gara adin guztietako haurren irudimena pizten», Artubikoek diote. Ekitaldi ugari direnez, edonork parte har dezake, edozein delarik bere adina. Jendea animatu nahi dugu, ondo pasatzeko aukera handiak baitaude».

# Santamañen inguruan «giro ona» izan da nagusi

**Santamañiak** » Albizturko Santa Marina auzoan eta Asteasun izan dira, eta orokorrean, «pozik» daude antolatzaileak.

## NEREA URBIZU

Albizturko Santa Marina auzoan jaia egin zuten Santamaña egunean, igandean, hain zuzen. Aurten xirimiria egin du eta hori nabaritu egin da, beste urteetan bezainbeste jendea hurbildu gabe. Aimar Irigoien zen joatekoa baina kontraktura batengatik, bere ordez beste harri-jasotzaile bat hurbildu zuten: Jexux Mari Izeta, hain zuzen.

Sardon eta Izeta III.a aritu ziren erakustaldian, eta ondoren aizkolarien txanda iritsi zen. Jarraian, herritarak aritu ziren, korrika batzuk, kixkiekin eta txingekin beste



Albizturko gazteak aritu ziren herri kiroletan ere, kixkiak biltzen, adibidez. E.E.

batzuk. Korrika aritu zirenen artean, bi-hiru erorialdi izan ziren eta jendearen barreak entzun ahal izan ziren orduan.

Bertsolariak aritu ziren gero eta

bertan, erorialdien inguruko bertsoak ere bota zituzten Mendiluzek eta Peñagarikanok. Gorka eta Xabier Arandia anaaien trikiritxia doinuak ere ez ziren faltatu.

Bestalde, Albizturko Udalak boletoko batzuk jarri ditu salgai, eta abuztuaren 17an bertso-palaren ondoren zozketa egingo dute. Segoretan bi lagunentzako bazkaria irabaz daiteke.

## Asteasun «jende asko»

Asteasun bukatu dira santamañiak ere. Igandeko eguna ia-ia borobila atera zitzaizen, zaldi karrera bertan behera geratu izan ez balitz. Eguraldiak baldintzatzen zuen zaldi lasterketa eta hala izan zen igandean: lurra bustiegia zegoen, arriskuetsua. Horregatik, egunez aldatzea erabaki dute. Antolatzaileek esanda, «ez dakigu zein egunetara pasako dugun ekitaldia baina uda parte egin nahiko genuke».

Txirindularien Andazarrateko XXIV. Igoerako irabazleak hauek izan dira: Imanol Nazabal, Antton Labaka eta Jon Mendia nagusie-

tan. Emakumeetan nagusietan ere, Izarne Mayoza, Josune Sarasola eta Nerea Linazasoro. 15 urte azpikoetan, berriz, hauek izan dira: Enaitz Roteta, Zuhaitz Roteta eta Julen Lizarribar.

Toka txapelketan nagusien mailan hauek aritu ziren hobekien: gizonetan Jon Lizarribar, Prudentzio Olano eta Anjel Alkain. Emakumeetan Ana Usandizaga, Begoña eta Marisa Hernaez. Txikietan, aldiz, Asier Mendizabal, Aitor Irazu eta Unai Lizarribar. Guztira 74 parte-hartzaile aritu ziren.

Orokorrean, antolatzaileak «pozik» daude igandeko egunarekin Asteasun. «Aurreko urteetan baino txirindulari gehiago ibili dira, eta tokan ere bai. Pena zaldien lasterketa izan da, baina aurrerago egingo dugu hau, bilera egingo dugu eta erabakiko dugu noiz egin».



# hitza

elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat



Harpidedunentzat  
**%25**  
merkeago

Tolosako  
HITZAren  
bulegoan  
eskuragarri.

elastikoarekin  
**poltsa opari!**



# TXURITIK BELTZERA, MOREA

**Villabona** » Bost arraunlari billabonatar; berandu hasi ziren arraunean, duela hiruzpalau urte, eta hasierako ilusio hari erabateko diziplina gehitu diote; Haietako laurek azaldu dituzte arraunaren nondik norakoak.



Goitik behera, Garikoitz Lopetegui, Joseba Larrarte, Eneko Larrarte eta Andoni Leunda. ANDONI CANELLADA/A.P.

dela bi urte hasitakoak. Villabonatarrek dira hirurak, San Pedroren, San Miguel ligako liderraren, arraunlariak. Lehorrekoak, kostan erraieraraino errotutako jardunean. «Dena den, lehorrean ere bada tradizioz, ez pentsa! Nire etxean beti jarraitu da arrauna, eta traineruek lehorreko arraunlariak ere eduki izan dituzte», azalpena Libia-ko beste villabonatar batek, Andoni Leundak. Eta Ander Ansa da bosgarrena. Bost villabonatar, arraunean berandu samar hasitakoak, gainera, liderraren traineruan. «Guk txuritik beltzera egin dugu», Joseba Larrarteren esana. Bidean, baina, morea, Libia-aren morea aukeratu zuten. BERRIAK horietako lau bildu ditu.

Ander Ansa falta da, traineruaren aurreko titularra. Lanean dago. Arratsaldeko 16:00ak dira, eta beste laurak herriko taberna batean bildu dira, ohi bezala. Kafea hartu, eta entrenatzera. «Hori da gure egunerokoa». Orain, baina, San Pedro San Miguel ligako liderra dela-eta, komunikabideen arreta bereganatu dute. Apur bat beranduago joango dira entrenatzera. «Atzo, kazetari batzuk agertu ziren entrenamenduan euren kamerekin, eta kide bat ez ez zegoen gustura. Nik esan nion seinale ona dela», esan du Joseba Larrartek.

Hain zuzen, Joseba Larrartek xaxatu zituen anaia eta Lopetegui arraunean has zitezten. Denetan beteranoena, Leunda, aldiz, lehenago. Larrartetarretan zaharrena koadrilako beste birekin eta Ibarrrako lagun batekin hasi zen 2004ko neguan, baina berak bakarrik jarraitu zuen. Zergatik? «Beno, zortea izan nuen. Estropadak jokatu nituen; izan ere, arraunean ez baduzu egiten, ez bazara lehiatzen, negua oso luzea egiten da. Iaz egin genuena, gainera, pizgarri handia izan zen jarraitzeko». Anaia ikusita, eta hark akuilatuta ere, Enekoren grina piztu zen urte bete geroago: «Futboleko jokatu nuen Tolosarekin, 18 urte bete arte. Gero, berriz, lau bat urte egin nituen ezer ere egin gabe. Jan eta lo». Lopetegui hasi zen berarekin batera 2005eko neguan: «Txikitik futboleko pilotan ibiltzen nintzen, kirolasko egiten nuen, baina behin 18 urte eginda eta lanean hasita, dena utzi nuen. Zazpi urte geroago, berritokirolean».

Txuritik beltzera, beraz. Kolpetik uretara. Lehen entrenamendua nola gogoratzen duten galdetuta, erantzuna bat-batekoa: «Uffaa!». Eta barreak. «Bateren probatu gabe, entrenatzaileak ontzian sartu ninduen. Teknika aldetik hutsaren hurrengo nintzen, eta fisikoki zizko eginda bukatu nuen», Leundak gogoratu duena. Eneko, berriz, nekea eta dena eman beharrean ibili zirela etorri zaio burura: «Ez

genuen paladak ematerako asmatzen, baina kristoren ilusioarekin ibili ginen. Pot eginda, baina errepikatu egin behar genuela esanez.... Sentsazio eder hura... Garrantzitsua izan zen hori». Lopetegui «aurreko 10 paladakadetakoz» hitz egin du. «Kanpotik ez du ematen hala denik, baina ontzi barruan zoazenean, taldea ondo dagoenean, abiadura, sentsazio... Kirol bezala menpekotasuna sortzen duela esango nuke dudarik gabe», errematea Josebak.

**«Bizitzeko denborarik ere ez»**  
Baina hasiera hartan 100 kilo zituen. Lopetegui, berriz, 115. «Orain, aldiz, 85en bueltan nabil. Hasi eta aurreko neguan 89an geratu nintzen. Gero, kanpoan geratu nintzen, kiloak hartu nituen berriro, eta 103rekin hasi 2006ko

**«Kirol moduan, arraunak menpekotasuna sortzen duela esango nuke dudarik gabe»**

**JOSEBA LARRARTE**  
San Pedroko arraunlaria

**«Gutxi egongo dira, ni eta Garikoitz bezala arraunean liga nagusian hasi direnak»**

**ENEKO LARRARTE**  
San Pedroko arraunlaria

neguan». Gorpuzkera, hortaz zeharo aldatu zaie. Eta bizitza ere bai. «Erabat». «Dena», diote. «Orain ez daukagu ezer egiteko denborarik. Bizitzeko denborarik ere ez, esaten den bezala. Neguan eta udan, antzerako», esan du Josebak. Eneko eta Lopetegui, aldiz, hiru errelebotara lan egiten dute. Baina, zera bota du segidan Josebak: «Nire ustez, San Pedroren goraka etorri da entrenamendua oso gogorrak direlako, matxakatu egiten garelako».

Lehen, garai batean ezer ere egin gabe, eliteko kirolariaren eginbeharrak zeintzuk ziren jakin gabe ere, eta egun, eliteko eliteko kirolari bihurtuta; zuritik beltzera. «Parrandan ezin atera, eta herrian ere, apenas», adierazi du Eneko lasai asko. Norbaitek aginduta? «Ez, ez, baina niri etortzen zait burura talde bat garelako, kideari errespeta osoa zor diogula». Fraideen bizitza egiten dute ia-ia. Josebaren ustez, eurentzat baino «gogorrago» da hori ingurukoentzat. Dena den, ez dira damutzen. «Zaletasun» bat da. «Kirol honek hau dauka: ez bazara sakrifikatzen, jai daukazu», aitortu du Josebak. Leundak, aldiz, ez du gogorik edukitzen ateratzeko ere. «Ez dakit adinagatik den...».

Hori bai, uztea pasatu izan zaie burutik. Josebaren esanetan, ha-

## IGOR SUSAETA (BERRIA)

Neskalagunak gauza bera esaten dit beti. Erremediorik ez daukagula, gurekin erdibiderik ez dagoela», bota du Joseba Larrartek. Orain lau urte, «egokortuta», arraunean hasi eta orduan zituen 100 kiloetik sasoiko-sasoiko egotera pasa da. «Kolpetik. Gurea xelebrea da», Eneko anaiaren burutazioa hurrena, San Pedroko arraunlaria bera ere, anaia bezala. «Gu garai batean tope ibiltzen ginen parrandan, baina koadrilakoek berotuta hasi ginen», esan du Garikoitz Lopetegik, Eneko Larrarterekin batera orain

Tolosaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritza edota  
Euskal Filologian  
lizentziatuak  
edo ikasleak behar ditu  
lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira

sieran baino gehiago, orain: «Koadrilakoak hor daude, neskalaguna... Egun pasa joan daitezke, oporretan... Buruak buelta asko ematen ditu. Ondo ari gara, eta ematen du beste guztia ahaztu egiten dela, baina urtea luzea da». Emaitez hain zuzen, asko laguntzen dute pentsamendu hori uxatzen. «Esfortzuak zerbaiteko balio duela ikusten duzu», Enekoren esana. «Horrela entrenatuta eta emaitzik lortuko ez bagenu...», segidan anaiak. Emaitez, hortaz, garrantzitsuak dira jarraitu ahal izateko. Eta giroa ere bai. «Kristoren giroa dugu taldean. Entrenatzeria joan eta barre egiten dugu... Dena ez da sufrimendua, eta lagun handiak egin ditugu arraunean».

Orain kirolaren alderdi distiratsuen bizitzan ari dira, baina ilunetan, edo erdi ilunetan ere ibili ziren. Hori ez da Lopetegiren eta Enekoren kasua, San Miguel ligan soilik arraun egiten dutelako -«Gutxi egongo dira gu bezala arraunean liga nagusian hasi direnak. Bitxia da», baina Joseba, esa-

### «Taldean lehiakortasuna handia delako, horregatik dabil ontzia hain ondo»

**GARIKOITZ LOPETEGI**  
San Pedroko arraunlaria

### «Bandera gutxi ikusten dira San Pedroko balkoietan, eta harrobia ere makal dabil»

**ANDONI LEUNDA**  
San Pedroko arraunlaria

terako, Federazioen Ligako B mailan jardun zen orain hiru urte. «Ez zitzaidan burutik pasa ere egiten honetara helduko ginenetik. TKE-ekoak beste maila batean bezala ikusten nituen. Gainera, eskas ibili ginen. Aitorrek [Balda, entrenatzailea], berriz, beste diziplina bat eman zion taldeari». Hiru urteren buruan, berriz, San Miguel ligan lider. Egoera, jautzia «asimilatzen» ikasi behar dutela diote laurak. «Ezin gara hazi. Lehen bezala jarraitu behar dugu: umil lanean», adierazi du Josebak. Baldak ere gauza bera pentsatzen du, noski. «Hobetu egin behar dela esaten digu Aitorrek», jarraitu du Enekok. Anaiak gogora ekarri Inaki Berrak, ontziarekin laguntzen dien gizon batek, esaten diena. «Berak esaten du oiloak bana-banan gorde behar direla. Eta ez zaio arazoirik falta. Liderrak gara, baina ez dugu ezer ere egin. Sentsazio hori dugu aldagelan».

### Orain lau urte, «ustelak»

Eta sentsazioez hitz eginda, Enekoren da aurrerantzean ere «ohorezko txandan» aritzeko moduan daudela: «Egoskorak gara, eta beti gora begiratu behar dugu». Ilusioa itsatsi die hitz horiei, eta, hain zuzen, ilusio hori hasiberriek edo erdi-hasiberriek onerako baliadzaketatela pentsatzen dute. «Ez

## » LAU BILLABONATAR SAN PEDRON



### Andoni Leunda

Arraunlaria

San Juanen hasi zen 1999an, 25 urte zituenean, eta hiru sasoi egin zituen han. Gero, segi edo ez segi egon zen tarte batean, eta dezentetan tostetatik kanpo geratzen zenez, azkenean Trintxerpera. Beste bi denboraldi egin, eta 2004tik arraunean egiten du Libia-rekin. CAF enpresan lan egiten, mantenimenduan.

dakit, agian, urte asko daramatzatenek, lasaitzeko, erlaxatzeko arriskua dute. Guk, ordea, hobetzeko tartea dugu, fisikoki hala teknikoki». Josebak ere umore ukitua jarri du: «Esan daiteke orain dela 4 urte ustelak geundela».

Ustelak fisikoki eta teknikoki ere bai, noski. Hasiara hartan, arlo teknikoaren ABCa erakutsi zieten. Hala diote beraien: «Arrauna zentzat makurtu, bularrean bukatu, poliki altxa...Hori guztia». Teoria



### Joseba Larrarte

Arraunlaria

Laugarren sasoi du arraunlari gisa, eta Libia-rekin aritu da beti. 29 urte dauka. Arrauna gustukua izan du beti, eta Andoni ezagutzen zuelako hasi zen. Kirola egitea gustatu izan zaio, baina taldeko kirol batean probatu nahi zuen. Koadrilako beste pare batekin hasi zen San Pedron, eta egun arte. CAF en lan egiten du, muntatzaile gisa.

«erraza» dela diote. «Uretan, berriz, batzuei asko kostatzen zaigu», esan du umil-umil Leundak. Haleteko «perfekziorik» ez dago Lopetegiren ustez, eta Enekorentzat, aldidiz, «maila onean dabilzanek ere egiten dituzte akatsak». San Pedrok hobetzeko tarte handia omen du adituen esanetan. Zenbatekoa? «Galdera gogorra da hori», erantzin du berrez Enekok; eta gero jarraitu ere: «Urtetik urtera joan behar dugu. Aitorrek esaten duenez,



### Garikoitz Lopetegik

Arraunlaria

2006 denboraldian Libia-rekin aritzeko intentzioarekin arraunean hasi zen aurreko neguan, baina bere taldekide eta lagun Eneko bezala, taldetik kanpo geratu zen estropadak jokatzeko hasi baino lehenago. Egoskortu, eta ez zuen etsi ontzian sartu arte. Laz bere lehen sasoi osatu zuen arraunlari gisa. Mekanikoa da eta 27 urte dauka.

bi urtetan dena irabaziko dugu. Bi urte horrela...». Eta Josebak segitu du, erantzunean umorea eta ironia nahastuz, eta keinu adierazgarri bat eginez: «Bizitza pertsonalik gabeko beste bi urte?».

Balda askotan aipatzen dute lau villabonatarrek, eta taldeari, batibat, zer eman dion esan dute: diziplina. «Entrenatzerakoan bera da bete-betean ibiltzen den aurrenekoa. Hortaz, hori ikusten baduzu, guk beste erremediorik ez dugu.



### Eneko Larrarte

Arraunlaria

2005eko neguan hasi zen arraunean, baina hurrengo urteko maiztean trainerutik kanpo geratu zela esan zion Aitor Balda entrenatzaileak, taldea osatuta zegoetropadak jokatzeko hasi baino lehenago. Beraz, urrian berriro hasi zen, eta iaz bere aurreko denboraldia osatu zuen. Tolosako tailer batean lan egiten du hiru errelebotara eta 26 urte dauka.

Bere buruari izugarri eskatzen dio, eta guk eredutatz daukagu», azaldu du Josebak. Era berean, motibatzen dakiela eta gauza mordoak transmititzen dituela esan dute. «Aitor ez da inorekin ezkontzen», Enekok esana. Beraz, lehiakortasuna handia da taldean. Hori uste du Lopetegik: «Bai, bai. Pentsa, neguan 30 geunden 19 postutarako, eta lehiakortasuna handia denez, horregatik gabilza ondo». Neguan «gaizki» pasatzen dela diote, denek dutela presioa. «Aitorri ez dio balio aurretik egindakoak».

Villabonan ordea, nabaritu da bost herritarrek San Pedrorekin egin dutena. «Jendeak galdetzen ditu gauzak; San Miguelen ez geundenean ere. Orain, gehiago, noski. Halere, lehorreko herri hauetan jendea Orioko da», adierazi du Josebak. Koadrilako batzuk ere Orioren kamiseta soinean dutela joaten dira estropadakikustera. Pasa San Pedron, ordea, makal antzean dago zaletasuna, trainerua ondo ibili arren. «Bandera oso gutxi ikusten dira balkoietan, eta harrobiak ere ez du funtzionatzen. Gazte gutxi dabilza», esan du, penaz, Leundak. Horregatik etzi San Pedron jokatu den estropadan herria kalean ikustea gustatuko litzaieke. «Ilusio handia egingo liguke». Momentu horretan gizon bat pasatu da arraunlarien paretik, ezagutu egin ditu, eta zorte ona opatu die morez jantzitakoei. Txuritik beltzerako bidean, morean geldialdia egin baitute.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



29°  
20°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	25°
HOTZENA	17°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Ibarra.** San Bartolome jaietako danborradako entsegua Belabieta kiroldegian 20:00etan.
- **Ibarra.** Abuztuaren 26an koadri- len bazkaria egingo da jaietan. Txartelak salgai egongo dira Sendi Ekintzan hilaren 17an, 23an eta 29an, 19:30etik 21:00ak arte, 22 eurotan.
- **Tolosa.** TAKeko nesken traine- ruaren aurkezpena udaletxe au- rrean 13:00etan. Bertan, Udalaren eta TAKen arteko lankidetzeta hitzarmena sinatuko dute.
- **Tolosa.** Billar, ping-pong, futbo- lin... torneoa Topagunean 17:00etan.

### Irteerak

- **Ibarra.** Langostino Moto Kultur Elkarteak irteera antolatu du hila- ren 27rako 10:00etan abiatuta Iru- ñea aldera eta 19:30ean Anoetako Saloon Radical Biker-era itzuliz. Izen-ematea, 30 euro ingresatuz Euskadiko Kutxako 30350141841410023232 kon- tuan.
- **Berastegi.** Uztailaren 24erako Aragoira irteera antolatu du Gaz- tainondok, Liedena, Sos del Rey Catolico eta Zangotza bisitatuz. Izen-ematea, Gaztainondon bertan egin behar da ahalik eta lehen.
- **Abuztuaren 29rako Laredora ir- teera antolatu du Harizpek, Lore Festara. Bidaia-aren prezioa 30 eu- rokoa da bazkideentzat, eta gai- nontzekoentzat, 33. Izen-ematea, elkartean**

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Ludotekaren eskutik, igerilekura

**ALTZO** Pasa den ekainaren 23an hasi eta uztailea guztian zehar, Altzo-ko ludoteka izaten ari dira etxe-ko txikiak. Beste ekitaldi askoren artean, Villabonako igerilekura joateko aukera izan zuten. Irteera berezia izan zen haientzat eta ederki gozatu zuten. Orokorrean, parte hartu duten gazteko guztiak «oso gustura ibili dira ludotekan», Altzoko Udaleko arduradunek azaldu dutenez; guztira 40 lagun inguru ibili dira eta «tamalez» ez zaie asko falta ludotekako ekitaldiez gozatzeko, izan ere, bihar bertan emango diete bukaera. Igerilekura joateaz gain, San Fermin eguna ere, esaterako, ospatu zuten zezen eta guzti. Abuztuaren etxekoekin egin beharko dituzte, beraz, planak... HITZA

## A Agurrak



**Urte askoan!**

**Luma (Tolosa)** Gaur 7 urte.

Zuk zaldiak bezain beste maite zaitugu guk zu.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosa: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak